


Gazteen % 70k sarritan aprobetxatzen dituzte eskaintzak eta beherapenak

Neskek mutilek baino gehiago aprobetxatzen dituzte beherapenak

Pasa den abenduan Gazteen Euskal Behatokiak ikerketa bat burutu zuen EAeko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean. Ikerketaren asmoa gazteen kontsumo ohiturak aztertzea zen eta horretarako 1500 gazte elkarrizketatu zituen.

Emandako erantzunen arabera, gazteen % 70k sarritan aprobetxatzen dituzte eskaintzak eta beherapenak, beste % 25ek batzuetan bakarrik aprobetxatzen dituzte eta gainontzeko % 5ek ez dituzte inoiz edo ia inoiz aprobetxatzen.


Portzentaje horiek duela hiru urte jasotako antzekoak dira; orduan galdera bera egin ziztaion adin tarte horretako horrenbesteko gazte kopuruari.




Neskek mutilek baino sarriago aprobetxatzen dituzte eskaintzak eta beherapenak: % 73k eta % 67k, hurrenez hurren, diote maiz aprobetxatzen dituztela.

Adinean gora egin ahala pixka bat jaisten da eskaintzak eta beherapenak sarritan aprobetxatzen dituztenen ehunekoa; horiek 15 eta 19 urte bitartekoen artean % 72 izatetik, % 67 izatera pasatzen dira 25 eta 29 urte bitartekoen artean.

Ikasten edota langabezian dauden gazteak dira eskaintzak eta beharpenak gehien aprobetxatzen dituztenak, % 72, hain zuzen ere, normalean erosteko ahalmen txikiagoa dutelako. Lanean dabilzanen artean, aldiz, % 63k diote sarritan erosten dituztela beharpenetan.



Zenbat eta baxuago kokatu maila sozialean orduan eta gehiagok diote eskaintzak eta beharpenak maiz aprobetxatzen dituztela: maila altuan edo erdi altuan kokatzen direnen % 64k, erdiko mailan kokatzen direnen % 71k eta beheko mailan edo erdi beheko mailan kokatzen direnen % 73k.



Azken urteotan eskaintzak eta beherapenak aprobetxatzen dituztenen zifrak oso gutxi aldatu badira ere, erosketak egin aurretik zenbat gastatu nahi duten pentsatuta daramaten gazteak gehitu egin dira: % 45 ziren 2010ean eta % 54 2013an.

Berriro ere ageri azaldu da erosteko ahalmen txikiena dutenak (langabeak eta maila sozial baxukoak) direla sarrien daramatenak erabakita zenbat gastatuko duten: % 60 kasu bietan.

Jarrai gaitzazu sare sozialetan!

